

Euskadiko gazteei buruzko datu estatistikoaren analisia

2015eko urtea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud y Deportes



Abenduak 10, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

Gazteen % 62 pozik dago Euskadin giza eskubideen errespetuarekin; beste % 30 ez dago pozik

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela-eta, Euskadin giza eskubideen errespetuarekin pozik dauden gazteen portzentajea aurkeztu nahi du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).


15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 12 oso pozik agertu da eta beste % 50 nahikoa pozik, beraz esan dezakegu gazteriaren % 62 pozik dagoela Euskadin giza eskubideek jasotzen duten errespetuari buruz galdetzen diogunean.

Aitzitik, gazteen % 23 ez dago oso pozik eta beste % 7 ez dago batere pozik. Hau da, % 30 ez dago pozik Euskadin giza eskubideek jasotzen duten errespetuarekin.

Gainerako % 7k ez du bere iritzirik eman.

Euskadin giza eskubideen errespetuarekin pozik dauden gazteen proportzioa handitu egin da aurreko urteetatik hona: 2005ean % 35ekoa zen, 2008an % 45ekoa eta 2014an % 62koa (eskuragarri dagoen azken datua).

Hazkunde hori 29 urtetik gorako biztanlerian ere gertatu da.



Edozelan ere, 2014an gazteak 29 urtetik gorako pertsonak baino pixka bat pozago azaldu dira.

Datuok Lehendakaritzako [Prospekzio Soziologikoen Kabinetea](#)k urtero prestatzen dituen Gazteen Argazkiak txostenetatik atera dira, [9.](#), [12.](#) eta [18.](#) txostenetatik hain zuzen ere. Txosten horiek Gazteen Euskal Behatokiarentzat prestatzen ditu Prospekzio Soziologikoen Kabineteak.


2014an, 15 eta 29 urte bitarteko 1091 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren Euskadin

Indarkeria sexistaren biktima izandako emakume guztien laurdena baino gehiago gazteak ziren


Azaroaren 25ero ospatzen den **Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna** dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, emandako datuak aztertu ditu. Datuok emakumeenganako indarkeriaren ingurukoak dira.

Datuen arabera, 2014an, Euskadin, 4091 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren. Haietatik % 27 (1091) 15 eta 29 urte bitarteko emakumeak ziren.


Adin-taldean arabera banaketari erreparatuz gero, honako hau antzematen dugu: 276 emakume (guztien % 7) 15 eta 19 urte bitartekoak ziren; beste 362 emakume (guztien % 9) 20 eta 24 urte bitartekoak ziren; azkenik, 453 (guztien % 11), 25 eta 29 adin tartekoak ziren.



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen tasek (adin-talde bereko 1000 emakumeko kalkulatuak) ezberdintasun nabariak agertzen dituzte emakume gazteen eta 30 urtetik gorakoen artean (%7,7 eta %2,7 hurrenez hurren). Lurralde historikoen arabera Araban ematen da alderik sakonena.



Azkenik, **emakumeen aurkako indarkeriaren tasen bilakaerari** jotzen badiogu, zera ikus dezakegu: 15 eta 29 urte bitartekoen tasa 2012tik 2014ra egonkor dabilela; aldiz, 30 urte edo gehiagokoen tasak zertxobait behera egin du 2012tik hona. Tasa hauek kalkulatzeko **denuntziak ipini** dituzten emakumeak aintzat hartu dira.



Datuok eta beste hainbat Gazteen Euskal Behatokiaren [Estatistiketan](#) kontsulta daitezke, **Balioak eta jarrerak** atalaren **Emakumeenganako indarkeria** azpiatalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak **Beldur Barik** egitasmoa zabaltzen lagundu nahi du. Egitasmo hau Emakundek eta Eudelek sustatzen dute, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Berdinsarea izeneko udal-sarearen baitan. Egitasmoak Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundien babesa eta diru-laguntza du, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, EHU-Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITB lankidetzaren ere.

Egitasmoaren helburua gazteen artean indarkeria sexista prebenitzea da. Programaren osagai nagusienetako bat ikus-entzunezko adierazpen artistikoak saritzen dituen lehiaketa da, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua. Adierazpen horietan, neskek eta mutilek erakusten dute emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari nola egiten dioten aurre, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, ardurakidetzan eta indarkeria sexistaren gaitzespenean oinarrituta.

Beldur Barik ekimenari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu bere webgunera <http://www.beldurbarik.org/> edo beren [Facebook](#) eta [Twitter](#) profiletara.

Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik batek egunero erabiltzen du bizikleta ohiko joan-etorrietan

Europako mugikortasun astea 2015

2015eko **Europako mugikortasun astea** irailaren 16tik 22ra arte ospatuko dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak bizikletaren erabilerari buruzko datuak aurkezten ditu.

2012an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,6k esaten zuen bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzen zuela bere ohiko joan-etorrietan. Ehuneko horrek aurreko urteetakoa bikoizten zuen, 2004an eta 2008an % 5 izatetik 2012an ia % 10 izatera pasatu baita. Bidegorrien sarea gero eta handiagoa da eta herri askotan ere bizikletak maileguan hartzeko zerbitzu publikoa eskaintzen da; bi faktore horiek lagungarri izan daitezke garraiobide horren erabileraren sustapenean.

Mutilek neskek baino gehiago erabiltzen dute bizikleta. Mutilen % 13 egunero mugitzen da bizikletaz, nesken kasuan % 6 soilik.

Adinean gora egin ahala gutxiago dira eguneroko joan-etorrietan bizikleta erabiltzen dutenak: 20 urtetik beherakoen artean % 11,3; 20 eta 24 urte bitartekoen artean % 10; eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 8,2.


Zeregin nagusiak alde esanguratsuak adierazten ditu. Ikasleen artean % 11,6k erabiltzen du bizikleta egunero, langabetuen artean % 10,2k, baina lanean dabiltzanen artean % 6,6k baino ez.

Dena dela, alderik nabarmenena gazteak bizi diren lurraldeak erakusten du: Araban eta Gipuzkoan bizikleta egunero erabiltzen duten gazteen kopurua (% 17,2 eta % 18,1, hurrenez hurren) Bizkaian baino askoz handiagoa da (% 2,1).

BALIO ETA JARREREN INGURUKO OINARRIZKO DATUAK



Garraiorako bizikletaren ohiko erabilera Todos (Ehunekoa, 2012)



DEFINIZIOA: Eguneroko edo ia eguneroko joan-etorrietarako bizikleta erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Bizikletaren erabilpenari buruzko adierazle hau **Gazteen Adierazleak 2013** ikerketan kontsulta daiteke, “**Balioak eta jarrerak**” atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bat baino ez da hori. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- **Datu base interaktiboa.** Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du 111 adierazleen eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.
- **Gazteen Adierazleen Panela,** ikerketaosatzen duten adierazle guztien informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- **Adierazleen fitxak,** oinarrizko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- **Laburpen exekutiboa,** aztertutako 111 adierazleen informazioa laburbiltzen duen testu laburra.

Euskadin hamar gaztetik zazpi sarritan erabiltzen dute garraio publiko kolektiboa edo kotxea partekatzen dute

Europako mugikortasun astea 2015


2015eko Europako mugikortasun astea irailaren 16tik 22ra arte ospatuko dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) ezagutzera eman nahi ditu gazteek joan-etorrietan iraunkortasunaren aldeko ohitura batzuk jarraitzen dituzten, garraio publiko kolektiboa erabiltzen duten edo beste pertsona batzuekin kotxea partekatzen duten, hain zuzen ere.

2013an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko % 69k sarritan erabiltzen zuela garraio publiko kolektiboa edo kotxea partekatzen zuela esaten zuen. Ehuneko hori 2010ean jasotakoa (% 64) baino handiagoa zen.

Oro har, neskek mutilek baino kopuru handiagoan erabiltzen dute garraio publiko kolektiboa edo kotxea partekatzen dute ohiko joan-etorrietan (% 76 eta % 63, hurrenez hurren).

Zenbat eta gazteagoa izan orduan eta gehiago erabiltzen da garraio publiko kolektiboa edo kotxe partekatua: % 80k 15 eta 19 urte bitartekoen artean, % 76k 20 eta 24 urtekoen artean eta % 57k 25 eta 29 urte bitartekoen taldean. Hori logikoa da gazteenek kotxerik ez izateaz gain askotan gidatzeko baimenik ere ez dutelako. Bestalde, gazteenen taldean gehienak ikasleak dira eta horiek, askotan, garraio kolektiboa izaten dute ikasketa zentrorra joan ahal izateko; nagusienek, aldiz, lanera joateko sarritan ez dute ibilgailu propioa erabiltzea baino beste aukerarik. Hori argi ikusten da analisia zeregin nagusiaren arabera egiten denean: ikasleen % 81ek garraio kolektiboa erabiltzen dute edo kotxea beste batzuekin partekatzen dute askotan eta lanean dabiltzanen artean ehuneko hori % 50ekoa da.

Gazteak bizi diren lurraldearen arabera aldeak hautematen dira Bizkaiaren (% 73) eta Araba eta Gipuzkoaren artean (% 65 azken bi lurralde horietan). Bizkaian metroa izatea eta garraiobide hori lurraldeko herri jendetsuenetara heltzea izan daiteke horren azalpenik logikoena.




Aipatutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak 2010ean eta 2013an eginiko bi ikerketatik datoz. Bakoitzean Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte baino gehiago elkarriketatu ziren. 2010eko datuak [*Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean*](#) izenburuko txostenean argitaratu ziren; 2013koak argitaratzeko bidean daude oraindik.

Ekainaren 28a, LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

Euskadiko gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde eta sexu aldaketa legalaren alde daude

Ekainaren 28an LGTB (lesbiana, gay, transexual eta bisexualak) **Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aditzera ematen ditu gai honi buruzko datu batzuk. Datuok [Euskadiko gazteak](#) bildumaren azken ikerketatik datoz. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak egin eta kaleratu zuen eta burutzeko Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarrizketatu zituen.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertu dira (% 87), baita sexu aldaketa legalaren aldekoak ere (% 81). Datuok 2008an izandakoen antzekoak dira.




Adinaren arabera alde nabarmenik antzematen ez bada ere, esan beharra dago sexuaren arabera badaudela alde aipagarriak: emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan defendatzen dute bai sexu bereko pertsonen arteko ezkontza (emakumeen % 92 eta gizonen % 82), baita sexu aldaketa legala ere (% 88 eta % 74, hurrenez hurren. Ondoriozta daiteke, beraz, **identitate sexualari buruzko jarrerak irekiagoak direla emakume gazteen artean**, gizon gazteen artean baino.

Bestalde, **Euskadiko gazteak espainiakoak baino neurri handiagoan azaldu dira sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldekoak**; Espainiako gazte gehienak, % 77, alde badaude ere, ideia bera duten Euskadikoak baino gutxiago dira.

BALIO ETA JARREREN INGURUKO OINARRIZKO DATUAK



Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen sostengua lurralde-eremuaren arabera (Ehunekoa, 2012)



DEFINIZIOA: Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen sostenguari eta legezko sexu aldaketaren sostenguari buruzko adierazle hauek [Gazteen Adierazleak 2013](#) ikerketan kontsulta daitezke, “[Balioak eta jarrerak](#)” atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokia gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bi baino ez da horiek. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokia berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- [Laburpen exekutiboa](#), aztertutako adierazle guztien informazioa laburbiltzen duen testu laburra.
- [Gazteen Adierazleen Panela](#), ikerketaosatzen duten 111 adierazleen informazioa biltzen duen laburpen-aula.
- [Adierazleen fitxak](#), oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- [Datu base interaktiboa](#). Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta 111 adierazleak aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.

Euskadiko emakume gazteek gizon gazteek baino modu jasangarriagoan kontsumitzen dute

[Gazteen Euskal Behatokia](#) kontsumo jasangarriaren indizea sortu du, jakiteko Euskadiko gazteek ingurumena errespetatzeko irizpiderik jarraitzen ote duten kontsumitzeko orduan. Indizea sortzeko gazteek beraiek emandako erantzunak hartu dira kontuan, jasangarritasunarekin eta ingurumena zaintzearekin lotutako azturei buruzko galderak egin ostean.

Galderok honelakoak izan ziren, hain zuzen ere: ontzi edo pakete gutxi erabilitako produktuak erosten saiatzen diren, erosketetarako poltsa edo orga propioa eramaten duten, etxean hondarren araberako zaborren banaketa egiten duten, geroago berziklatu ahal izateko, uraren kontsumoa murrizten saiatzen diren eta garraio publikoa edo partekatutako autoa erabiltzen duten ohiko joan-etorrietan. Aurreko bost jokabide horietatik gutxienez lau ohiko dituztenek modu jasangarrian kontsumitzen dutela esango dugu.


Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,3k kontsumo jasangarriko irizpideak jarraitzen ditu, aurreko definizioari erreparatuta. Ehuneko horrek gora egin du pixka bat 2010etik 2013ra, eta % 41,2tik aipatutako % 43,3ra igo da.

Emakume gazteek gizon gazteek baino sarriago jarraitzen dituzte kontsumo jasangarriari lotutako azturak. Hori dela eta, kontsumo jasangarriaren indizea % 48,7koa da nesken artean eta hamar puntu baxuagoa, % 38,3koa, mutilen artean.

BALIO ETA JARREREN INGURUKO OINARRIZKO DATUAK



Kontsumo jasangarriaren indizea sexuaren arabera (Ehunekoa, 2013)



DEFINIZIOA: Kontsumo jasangarriari loturiko ondorengo bost jokabide hauetatik gutxienez lau ohiko dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehu..

ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteen Joerak Seriea

Kontsumo jasangarriari buruzko adierazle hau [Gazteen Adierazleak 2013](#) ikerketan kontsulta daiteke, "[Balioak eta jarrerak](#)" atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bat baino ez da hori. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- **Laburpen exekutiboa**, aztertutako adierazle guztien informazioa laburbiltzen duen testu laburra.
- **Gazteen Adierazleen Panela**, ikerketaosatzen duten 111 adierazleen informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- **Adierazleen fitxak**, oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- **Datu base interaktiboa**. Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta 111 adierazleak aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.


Maiatzaren 17a, Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde eta sexu aldaketa legalaren alde daude

Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aditzera ematen ditu gai honi buruzko datu batzuk. Datuok [Euskadiko gazteak 2012](#) ikerketatik datoz. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak egin eta kaleratu zuen eta burutzeko Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarriketatu zituen.


Gazte gehienek auzoan homosexualak izateko eragozpenik ez dutela adierazi arren (% 86), oraindik gazteen % 11ri axolako litzaieke homosexualak (gay edo lesbianak) auzokide izatea.

Homosexualak errefusatzeko dituzten gazteen portzentajea handitu da azken urteetan, nahiz eta 2000 baino lehenagoko portzentajetara ez heldu.



Homosexualak errefusatzea pixka bat zabalduago dago gizon gazteen artean (% 12) emakume gazteen artean baino (% 10). 25 urtetik beherakoek adin horretatik gorakoek baino zertxobait gehiago errefusatzeko dituzte homosexualak (15 eta 19 urte bitartekoen artean % 14k ez dute nahi homosexualik auzokide gisa, 20 eta 24 urte bitartekoen artean % 13k eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 8k, hain zuzen ere).

Hala ere, ezin da ahaztu Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertu direla (% 87), baita sexu aldaketa legalaren aldekoak ere (% 81). Datuok 2008an izandakoen antzekoak dira.



Adinaren arabera alde nabarmenik antzematen ez bada ere, esan beharra dago sexuaren arabera badaudela alde aipagarriak: emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan defendatzen dute bai sexu bereko pertsonen arteko ezkontza (emakumeen % 92 eta gizonen % 82), baita sexu aldaketa legala ere (% 88 eta % 74, hurrenez hurren

Ondoriozta daiteke, beraz, identitate sexualari buruzko jarrerak irekiagoak direla emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino.


Euskadiko gazteek Europari buruz duten irudiak txarrera egin du

Maiatzaren 9an **Europako Eguna** ospatzen dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aditzera ematen ditu Euskadiko gazteek Europar Batasunari buruz duten irudiaren inguruko datuak.

2015ean 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 37k soilik dute Europar Batasunari buruzko irudi positiboa. % 41ek irudi neutroa dute eta beste % 20k irudi negatiboa (gainontzeko % 2k ez dute beren iritzia eman).


Europar Batasunari buruzko irudi positiboa dutenak gutxiengoa badira ere, proportzio handiagoa osatzen dute gazteen artean 18 urtetik gorako biztanleria osoan baino (% 37 eta % 31, hurrenez hurren).

Aipatutako datuok 2007an jasotakoekin alderatuz gero, ikus dezakegu azken zortzi urte hauetan Europar Batasunak gazteen artean duen irudia nabarmen okertu dela.



Gainera, 2015ean Euskadiko gazteen % 53ren ustez “demokratikoa” hitza gutxi hurbiltzen zaio edo ez zaio batere hurbiltzen Europar Batasunari buruz duten ideari (beste horrenbeste dira iritzi horretakoak biztanleria osoan ere, hau da, % 53).

2007ko datuei erreparatuz gero, berriro ere ikus dezakegu Europar Batasunaren irudia okertu egin dela gazteen artean, orduan gehiago baitziren oso edo nahikoa demokratikoa zela uste zutenak, gutxi edo batere demokratikoa ez zela uste zutenak baino.



Agian krisi ekonomikoaren kudeaketa eta krisitik irteteko Europar Batasunak ezarritako baldintzak egon daitezke Euren irudia okerragotzearen azpian, bai gazteen artean bai eta modu nabarmenagoan biztanleria osoan.

Aipaturiko datu guztiak Eusko Jaurlaritzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) burututako bi ikerketatik datoz. Ikerketa horiek Euskadiko biztanleriaren lagin adierazgarriari eginiko inkestetan oinarritzen dira. Lehenengoa 2007an egin zen ([Europaren etorkizuna](#)) eta bigarrena aurten, 2015ean ([57. Euskal Soziometroa. Euskadi munduan](#)). Gazteen Euskal Behatokiak 18 eta 29 urte bitarteko gazteek emandako erantzunak aztertu ditu, bai eta biztanleria osoak emandakoekin alderatu ere.

Euskadiko gero eta gazte gehiago hurbiltzen da Bidezko Merkataritzara


15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 60k Bidezko Merkataritzako produktuak erosi izan dituzte inoiz.

Maiatzaren 10ean **Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna** dela-eta, Bidezko Merkataritzako produktuen kontsumoa aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#), Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean. Aztertutako datuak 2010ean eta 2013an egindako bi ikerketatik eratorri dira.

Euskadiko gazteen kontsumo-azturak aztertzea izan da bi ikerketa horien helburua. Horretarako, arreta handiagoa jarri da kontsumoa gauzatzeko moduan, kontsumitzen den horretan edo kontsumitutako kopuruan baino. Era berean, ahalegindu gara identifikatzen zein neurritan ohartzen diren gazteak edozein produktu edo zerbitzu kontsumitzeak dakartzan inplikazioez -pertsonalak, sozialak eta ingurumenekoak-.


Bi ikerketak konparatuta, zera antzeman daiteke: 18 puntu igo dela Bidezko Merkataritzako produktuak inoiz kontsumitu dituztenen ehunekoa: 2010eko % 42tik 2013ko % 60ra.

Neskek hein handiagoan kontsumitzen dituzte Bidezko Merkataritzako produktuak, mutilek baino (% 64k eta % 55ek, hurrenez hurren). Bidezko Merkataritzako produktuen kontsumoak gora egiten du adinean gora egin ahala: 25 eta 29 urte bitartekoen % 64k horrelako produktuak kontsumitu izan dituzte inoiz.



Zehaztu beharra dago ehuneko horiek ez direla horren altuak, Bidezko Merkataritzako produktuak kontsumitu ohi dituztenei erreparatzen badiugu. Gazteen % 7k sarri erosten dituzte Bidezko Merkataritzako produktuak. Alabaina, goranzko joera antzeman daiteke Bidezko Merkataritzako produktuak sarri erosten dituztenen ehunekoan, izan ere, 2010ean gazteen % 4 baino ez ziren.

Datuak lurralde historikoen arabera aztertuta, horrelako produktuak noizbait kontsumitu izan dituztenen ehunekorik altuen duen lurraldea Araba da. Jarraian, Bizkaia dator (% 61) eta, azkenik, Gipuzkoa (% 54).



EAEko gazteei buruzko datu gehiago kontsultagai [Gazteen Euskal Behatokiko estatistiketan](#).

Gazteen % 82k erreklamatu egiten dute erositako produktu edo zerbitzu batekin arazoak izanez gero


Martxoak 15 [Kontsumitzaileen Eskubideen Mundu-mailako Eguna](#) dela eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k datu batzuk kaleratu ditu Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek nola kontsumitzen duten hobeto ezagutzeko.

Gazteen % 84k diote ezer erosi baino lehen produktua ondo dagoela konprobatzen dutela.

Baina ez dira gazteen erdira iristen etiketa begiratzeko ohitura edota erabiltzeko argibideak irakurtzeko aztura dutenak (% 37 eta % 32, hurrenez hurren).

Gazteen erdiek (% 51k) erositakoaren edo kontratatutakoaren bermea begiratzen dutela azaldu dute.

Azkenik, gazteen % 82k adierazi dute normalean erreklamatzeko dutela erositako produktuarekin edo kontratatutako zerbitzuarekin arazoak badituzte edo gustura ez badaude.



Arazoak izanez gero erreklamatzeko dutenen ehunekoa handiagoak dira gizonezkoen artean (% 85) emakumezkoen artean baino (% 79).

Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiak 2013an argitaratutako ikerketa batetik datoz. [Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean](#) da ikerketa horren izenburua eta burutzeko Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarrizketatu ziren.

Euskadiko gazteen erdiek baino gehiagok uste dute harreman sexualak izateko ez dela beharrezkoa maiteminduta egotea

Espainiako gazteek Euskadikoek baino neurri handiagoan lotzen dute sexua eta maitasuna


EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek gero eta gehiago diote sexualitatea oso garrantzitsua dela beraien bizitzetan. 2000 urtean gazteen % 24k zioten hori eta 2012an % 34k. Hori ez da harritzekoa kontuan izanik gazte gehienaren iritziz (% 80) sexualitatea beharrezkoa dela norberaren orekarako.

Edozelan ere, gazteen erdiek baino gehiagok bereizten dituzte harreman sexualak eta maitasuna, hori horrela "harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar da" baieztapenaren kontra daude gazteen % 59.

Baieztapen horren kontra daudenek gehiengoa osatu dute aztertutako talde guztietan. Hala ere, gai honetan aldeak daude nesken eta mutilen iritzien artean: mutilen % 23k uste dute harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela eta nesken kasuan % 36ra handitzen da portzentaje hori.

Harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela uste dutenak gero eta gutxiago dira adinean gora egin ahala: 20 urtetik azpikoen % 38 dira iritzi horretakoak, 20 eta 24 urte bitartekoen % 28, eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 25.

Espainiako gazteek EAEkoek baino neurri handiagoan uste dute harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela (% 37k eta % 29k, hurrenez hurren).




Azterketa hau egiteko, [Euskadiko gazteak 2012](#) izeneko ikerketaren emaitzetan oinarritu da [Gazteen Euskal Behatokia](#). Hortik ateratako datuak Espainiako Gazteriaren Institutuak (Injuve) 2010ean egindako ikerketatik ondorioztatutako emaitzekin alderatu ditu; "[Jóvenes y diversidad sexual](#)" da Injuveren ikerketa hori.



Etxebizitza / Vivienda

Euskadiko emakumeak gizonak baino lehenago emantzipatzen dira baina zailtasun gehiagori egin behar izaten diote aurre

Euskadin gurasoen etxetik kanpo, modu independentean, bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko emakumeen portzentajea % 54,5koa da. Adin tarte bereko gizonen kasuan, emantzipatuta bizi direnen portzentajea txikiagoa da, % 42koa, hain zuzen ere. Hau da, gizonen erdiak baino gehiago 35 urte bete ondoren irteten dira jatorrizko familiaren etxetik.



Eta emantzipatu eta gero, nola bizi dira 18 eta 34 urte bitarteko emakumeak?


Emantzipatutako lau emakumetik hiru (% 76,1) bikotekidearekin bizi dira (seme-alabak izan zein ez). Emakumeen artean ez da gizonen artean bezain ohikoa bakarrik edo lagunekin bizitzea.

Beren kontura bizi diren emakumeen % 49k alokatuta dute etxebizitza eta beste % 44,9k erosi egin dute, beraz, horietako gehienek hipoteka dute beren gain. Emantzipatutako gainontzeko emakumeak familiak edo beste batzuek lagatako etxebizitzan bizi dira.

Etxebizitzaren edukitze-erregimenari dagokionez ez da alde nabarmenik hautematen sexuaren arabera, baina etxebizitza eskuratzeko egin beharreko esfortzuari erreparatzen badiogu, orduan bai daudela alde nabarmenak emakume eta gizonen artean.

18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko emakume batek, berak bakarrik etxebizitza arrunt bat erosi nahi badu Euskadin, batez beste bere soldata garbiaren % 69,5 bideratu behar du hipoteka ordaintzera; adin bereko gizon baten kasuan soldataren ehuneko txikiagoa, % 57,4, bideratu behar du etxebizitza horren hipoteka ordaintzera, interes, amortizazio-epea eta abarreko baldintzak berdinak izanik.

Alokairuaren aldeko apostua eginez gero, emakume batek, berak bakarrik alokatzen badu, soldataren % 65,2 bideratu behar du errenta ordaintzera; gizonen kasuan etxebizitza berdina alokatzeko soldataren % 53,9 bideratu beharko lukete, batez beste.



Horren azalpena emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldean aurki daiteke, emakumeek, batez beste, gizonak baino 200 euro gutxiago irabazten baitute hilean.

Aipatutako datu guztiak 2013koak dira eta [Gazteen Euskal Behatokiak](#) burututako bi ikerketatik atera dira: [Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian](#) eta [Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2007-2013](#). Ikerketa horiek eskuragarri daude Gazteen Euskal Behatokiaren web orrian, *Ikerketak eta argitalpenak* izeneko atalean, “Emantzipazioa” bildumaren barruan.


Gipuzkoako gazteak dira etxebizitza eskuratzeko gastu handienak egin behar dituztenak

Euskadin 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte batek etxebizitza merkatu librean erosiz gero bere hileko soldata garbiaren % 62,8 bideratu behar du, batez beste, hipoteka ordaintzeko.

Hori Euskadiko batezbestekoa bada ere, desberdintasun nabarmenak daude lurraldeen artean. Gipuzkoan soldatapeko gazte batek, batez beste, soldataren % 70,5 bideratu behar du hipoteka ordaintzeko (merkatuko ohiko baldintzetan interesari, amortizazio-epeari eta abarri dagokionez); Araban, aldiz, soldataren % 54,2 eta Bizkaian bizi diren gazteak tarteko egoeran daude, hileko soldataren % 60 bideratu behar baitute hipoteka ordaintzeko.

Lurralde historikoen arteko alde horiek ulergarriak dira merkatu libreko metro karratuaren salneurriari erreparatuz gero: Gipuzkoan, batez beste, 2696 eurotakoa da, Bizkaian 2299 eurotakoa eta Araban 1753 eurotakoa (Euskadiko batezbestekoa 2353 eurotakoa izanik).

Antzekoa da alokairuaren inguruko egoera. Merkatu libreko alokairu errentak honenbestekoak dira, batez beste: 839 € Gipuzkoan, 822 € Bizkaian eta 744 € Araban. Hori dela eta, 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte batek bere hileko soldata garbiaren proportzio handiagoa bideratu behar du Gipuzkoan etxebizitza alokatzeko (% 60,9), Bizkaian baino (% 57,9) eta, halaber, Bizkaian Araban baino handiagoa (% 53,7).



Datu horiek 2013 urteari dagozkio (azken datu erabilgarriak baitira) eta Gazteen Euskal Behatokiak burututako ikerketa batetik atera dira: [Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2007-2013](#) izenburukoa, hain zuzen ere.




Ikuspegi orokorra / Visión global

Abenduak 18: Migratzaileen Nazioarteko Eguna


Euskadin erroldatuta dauden atzerriarren laurdena 15 eta 29 urte bitarteko gazteak dira

Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k atzerriko nazionalitatea izanik, EAEn erroldatuta dagoen atzerriko biztanleria gazteari buruzko datuak aurkezten ditu.


EUSTATen Biztanleen udal-erroldaren Estatistikaren datuen arabera, 2014an atzerriko 15 eta 29 urte bitarteko 40.484 lagun zeuden Euskadin erroldatuta. Horietariko 20.559 emakumeak ziren; gizonak, ostera, 19.925 ziren. 2012an punturik altuenera heldu ginen, 46.554 gazte atzerriar baitzeuden. Ordutik beheranzko joera antzematen da.



Gazte atzerriarrek Euskadiko gazteen artean duten pisuak ere 2006 eta 2012 artean goranzko joera izan zuen 2006tik (% 6,9) 2012ra (% 5,1). Ordutik joera beheranzkoa da eta 2014an %13,7ko pisua dute gazte atzerriarrek.



Azkenik, Euskadin erroldatuta dagoen atzerriko biztanleriaren gazteen indizea aztertuko dugu. Indize horrek neurtzen duena zera da: biztanleria jakin batean dauden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen portzentajea. Euskadin bizi diren atzerritarren laurdena baino gehiago (% 25,8), 15 eta 29 urte bitarteko gazteak dira.



Gazteen Euskal Behatokiaren [Estatistiketan](#) Biztanleriari eskaintzen zaion atalean, datu hauek eta beste hainbat aurki daitezke.

Urriak 17, Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna


Euskadin gero eta gazte gehiago daude benetako pobrezia-egoeran

Urriaren 17an Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadin pobrezia-egoeran dauden gazteei buruzko datu batzuk azalduko ditu. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak aldian-aldian burutzen duen [Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta](#) (PGDI) izeneko ikerketaren emaitzak aztertu ditu Gazteen Behatokiak.

Azken inkestari ([2014koa](#)ri, hain zuzen ere) erreparatuz gero, esan dezakegu Euskadiko Autonomia Erkidegoko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 8,7 benetako pobrezia-egoeran dagoela. Benetako pobrezia diogunean, esan nahi dugu aipatutako urtean gazte horiek bizi diren etxeguneetan ez dituztela ez diru-sarrera nahikorik ezta ondare nahikorik ere oinarritzko premiei (elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastu ohikoei) aurre egiteko.

Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoa (edo, beste modu batean esanda, gazteen benetako pobrezia-tasa) handitu egin da azken urteotan eta % 6,9tik % 8,7ra pasatu da 2008-2014 aldian.

Gainera gazteen benetako pobrezia-tasa biztanleria osoarena (2014an % 5,9) baino handiagoa da.



Abuztuaren 12a, Gazteriaren Nazioarteko Eguna

Gazteen Euskal Behatokiak bere konpromisoan dihardu: Euskadiko gazteen egoera eta beharren inguruan ikertu, hezi eta informatu

Gazteen egun honen ospakizuna dela-eta, [Behatokiak](#) urtearen lehen sei hilabeteetan egindako lanaren balantzea egin nahi du eta, bide batez, udazkenean eta urtearen amaieran aurrera aterako dituenak gogorarazi.

Ikerketak

- [Aurrera begira 2014: Gazteen aurreikuspenei buruzko adierazleak](#). Behatokiak urtero egiten duen ikerketa honek **lanarekiko** lehen baino **aurreikuspen baikorrakoak** islatzen ditu eta, baita ere, etorkizunarekiko **konfiantza indizearen igoera**.
- [Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian](#). Etxez etxeko galdeketa zabalean oinarrituta, **gazteriaren egoera** deskribatzen du bi arlo nagusiei dagokienez: **lana eta etxebizitza**.
- [Krisialdia eta gazteen emantzipazioa Europan. Azterketa bat ongizate-estatuaren ereduetatik](#), Ikerketa honek azaltzen du, alde batetik, **krisiak** Europako gazteen **emantzipazio-prozesuetan** izan duen **eragina**; eta, bestetik, enplegu- eta etxebizitza-politiken arteko lotura aztertu du, baita Europako herrialde ezberdinetako gazteen bizileku-autonomia ere.
- [Gazteen Adierazleak 2013 / Euskadiko Gazteen Panoramika](#). Gazteriarentzat politika publikoak ezartzeko eta bere eragina ezagutzeko oinarritzko tresna. **111 adierazletan**, batzuk Behatokiak egiten dituen azterlanetatik eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik hartuta, **gazteen egoerari buruzko panoramika** eskeintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.
- [Euskadiko gazteak 7 iruditan](#). Behatokiak egindako ikerketetatik abiatuta landu dugu euskal gazteriaren egoerako bideo diagnostikoa.
- [Europa Helmuga Gida 2015](#). Europa zabalean bidaiatzeko, ikasteko edo lan egiteko baliabide online multzo ezin osatuagoa, Gazteen Euskal Behatokiak urtero eguneratzen duena.

Urteko azken hilabeteetan **bi ikerketa berri** aurkeztuko ditugu: **Gazteria eta partehartze soziala Euskadin**, Euskadiko Gazte Kontseiluak (EGK) laguntzarekin egin, eta **Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin** izeneko ikerlanak, 2014an etxebizitza hartzeko kostuko adierazleen bilakaera aztertuko du.

Dokumentazio Zentroa

Gazteen Euskal Behatokiko [Dokumentazio Zentroaren](#) helburua gazteriaren alorrarekin zerikusia daukan dokumentazioa jaso eta hedatzea da. Horretarako abiapuntua eremuko jakintzagaiek osatutakoa da, gazteria interesgunetzat daukaten ikertzaileei, hezitzaileei eta programen eta politiken kudeatzaileei laguntza emateko asmoarekin. Aurten Zentroak eskaini ditu bere boletinak [artikulu interesgarrien laburpenak](#) landuz eta liburu eta aldizkarien berri emanez.

Gainera, bere atalari hiru [irakurketa gida](#) gehitu dizkio: **IKT-n erabilera gazteen sexualitateen arretan, Nerabeen bikote harremanetako bortxaren prebentzioa** eta **Gazteen parte-hartzea**.

Prestakuntza plana

Behatokiaren hirugarren lan-esparrua profesionalen [formakuntza](#) da. Antolatzen ditugun ikastaroen bidez gazteekin lan egiten dutenei, udaletxeetan, hezkuntza sisteman edo entitate eta elkarteetan, esparru ezberdinetan dituzten ezagutzak egunarazteko aukera ematen diegu.

Urtarriletik ekainera **sei ikastaro** antolatu ditugu eta **110 lagun** bertaratu dira. Ikastaroen balorazioak oso onak izan dira eta kasu batzuetan ikastaroa birritan egin behar izan da eskaera altua zela-eta. Ikastaroetan jorratu ditugun esparruak honako hauek izan dira:

- "IKT-n erabilera gazteen sexualitateen arretan: errealitateak eta aukerak ikastaroa"
- "Nerabeen bikote harremanetako bortxaren prebentzioa"
- "Gazteen Ekimenen eta Gazteen arteko Trukeen diseinua eta kudeaketa Erasmus + programan: Gazteak Ekinean"
- "Gazteen parte-hartzerako tresnak"

Urteko **azken hiruhilekoan hiru ikastaro berri** antolatuko ditugu gai hauei buruz: **mugikortasuna, gizarte-sareak eta adimen emozionala**. Gainera, **nerabeen bikote harremanetako bortxaren prebentzioaren ikastaroa berriz** eskeiniko dugu.

Gaztedoc


Gazteen Euskal Behatokiaren lanari buruz informazio gehiago nahi baduzu, jo gure [webgunera](#), jarrai gaitzazu gizarte-sareetan: [Facebooken](#) eta [Twitterren](#), edo eman izena bi hilabeteetan behin plazaratzen dugun [Gaztedoc buletinean](#).

Gero eta gazte gutxiago Euskadin

Euskadin 65 gazte baino ez daude 64 urtetik gorako 100 biztanlekiko

Biztanleriaren Mundu Eguna dela-eta, EAEko egitura demografikoaren bilakaerari buruzko datuak eskaintzera dator [Gazteen Euskal Behatokia](#). Datuok [Eustatek](#) argitaratutakoak dira, 2014ko urtarilaren 1erako eguneratuak.

2014an Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko 290.715 lagun zeuden. 2004an 407.140 lagun zirela kontuan hartzen badugu, azken hamar urteetan populazio gazteak % 30eko beherakada izan duela ikus dezakegu.




Gazteen kopuruaren murrizketak gazteen indizeak ere behera egitea dakar. Indize honek zera neurtzen du: gizarte baten 15 eta 29 urte bitarteko lagunaren proportzioa. Eustaten datuen arabera, 2014ko urtarilaren 1ean EAEko biztanleria 2.172.877koa zen. Haietatik 290.715 biztanle 15 eta 29 urte bitartekoak ziren, hau da, % 13,4. Beherakada bai gizonen eta bai emakumeen artean gertatzen da, eta 2014ko gazteen indizea % 13,5 da gizonen artean eta % 12,8 emakumeen artean.

[INEren Errolda Jarraiaren](#) 2014ko urtarilaren 1eko datuak oinarri hartzen baditugu, bakarrik Asturiasek (% 12,7) du Euskadik baino gazteen indize txikiagoa. Aldean, Andaluzia eta Murtziak gazteen indize altuenak dituzte (% 17,5).

	Gazteen indizea (%)
ANDALUZIA	17,5
MURTZIA	17,5
EXTREMADURA	17,4
KANARIAR UHARTEAK	17,1
GAZTELA-MANTXA	17,0
BALEAR UHARTEAK	16,8
MADRIL	15,7
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	15,6
KATALUNIA	15,3
NAFARROA	15,1
ARAGOI	14,8
ERRIOXA	14,8
GAZTELA ETA LEON	14,1
KANTABRIA	13,9
GALIZIA	13,7
EUSKADI	13,4
ASTURIAS	12,7
ESPAINIA GUZTIRA	15,8

Gazteen kopuruaren murrizketaz gain, EAEko 64 urte edo gehiago duten pertsonen bizitza luzatzen ari da. Horrek, azken hamar urteetan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 45 urtetik gorako arteko ratioaren iraulketa ekarri du.

2004an 64 urte edo gehiagoko 100 biztanlekiko 106,3 gazte zeuden Euskadin. Baina ordutik hona egoera erabat aldatu da eta kopuru hori gaur egun 64,6koa da, hau da, gazte gutxiago daude 64 urte baino gehiagoko nagusi baino. Bereziki esanguratsua da gizonen (78,2) eta emakumeen (54,7) arteko ezberdintasuna. Honen arrazoia honako hau da: [Euskadin emakumeen bizi-itxaropena 86,1 urtekoa da, gizonena, aldiz, 79,3koa.](#)



Populazio gazteari buruzko adierazle hauek [Gazteen Adierazleak 2013](#) ikerketan ere kontsulta daitezke, “[Demografia eta populazioa](#)” atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal honetan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- [Datu base interaktiboa](#). Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du 111 adierazleen eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.
- [Gazteen Adierazleen Panela](#), ikerketa osatzen duten 111 adierazleen informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- [Adierazleen fitxak](#), oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- [Laburpen exekutiboa](#), aztertutako adierazle guztien informazioa laburbiltzen duen testu laburra.

Martxoaren 20a: Zoriontasunaren Nazioarteko Eguna


Euskadiko gazte gehien-gehienek zoriontsuak direla diote

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak, 2012ko uztailaren 12an onartutako [66/281 ebazpena](#)ren bitartez, **martxoaren 20a** [Zoriontasunaren Nazioarteko Eguna](#) izendatu zuen. Zoriontasuna eta ongizatea gizaki guztion bizi-xedea dela aintzat hartzea bai eta gobernuaren politiketan sartzearen garrantzia onartzea da izendatze horren asmoa.


Egun hori dela eta, Euskadiko gazteak zenbateraino sentitzen diren zoriontsu azaldu nahi du [Gazteen Euskal Behatokia](#)k. Horretarako [Gazteen Argazkiak 17](#) ikerketaren datuetan oinarritu da. Ikerketa hori urtero egiten du Eusko Jaurlaritzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) Gazteen Euskal Behatokiarentzat. 17. edizio honetarako 15 eta 29 urte bitarteko 2000 gazte baino gehiago elkarriketatu ziren 2013an.

Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 29k oso zoriontsuak direla diote. Hauekin batera nahiko zoriontsuak direla adierazi duten % 60 kontuan hartzen baditugu, ondoriozta dezakegu Euskadiko gazteen % 89 zoriontsuak direla.

Datu horiek 30 urte eta gehiagoko biztanleriaren emaitzekin alderatuz gero, ikus dezakegu zoriontsuak direla dioten portzentajeak handixeagoak direla gazteen artean, 29 urtetik gorakoen artean baino. Oso zoriontsuak direla esan dutenen ehunekoei erreparatuz gero, adin tarte baten eta bestearen arteko aldea handiagoa da, hamaika puntutakoa, hain zuzen ere.



Bestalde, gazteen zoriontasun pertzepzioaren bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu zoriontsuak direla diotenen portzentajea pixka bat txikitu dela: % 92, [1996an](#) eta % 89, 2013an.




Emakume gazteek gizon gazteek baino proportzio handixeagoan diote zoriontsuak direla (% 91 eta % 88, hurrenez hurren). Emakume gazteen pertzepzio zoriontsuagoa mantentzen da denboran zehar, 1996an ere gehiago baitziren zoriontsuak zirela zioten emakume gazteak, gizon gazteak baino (emakume gazteen % 95 eta gizon gazteen % 90).

30 urtetik beherako gizonen % 4 bakarrik dira aita

Gizon gazte gehienei gustatuko litzaieke seme-alabak izatea baina uste dute horretarako adinik egokiena 35 urte direla

[Gazteen Euskal Behatokia](#)k aztertu du 18 eta 29 urte bitarteko zenbat gazte diren aita edo ama 30 urte bete baino lehen, bai eta etorkizunean seme-alabarik izan nahi duten ere. Horretarako 2014ko azaroan egindako inkesta batean oinarritu da. Inkesta horretan Euskadiko 1500 gaztek osatutako lagin adierazgarri bati gai horri buruzko hainbat galdera egin zitzaion.

Gizon gazteen % 4k aita direla esan dute, adin bereko emakume gazteek baino portzentaje txikiagoak, emakumeen % 10ek baitiote ama direla.




Adinean aurrera egin ahala gehiago dira aita diren gizon gazteak: 18 eta 24 urte bitartekoen % 2 bakarrik dira aita, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 5. Emakumeen kasuan adin tarte horien arteko jauzia handiagoa da: 25 urte bete baino lehen ama diren emakume gazteak % 3 dira eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, aldiz, % 19. Esan dezakegu, beraz, **aitatasuna eta amatasuna ez direla batere ohiko egoerak gaztaroan.**

Gizon gazteen iritziz, gizon batek seme-alabak izateko adinik egokiena 35 urte dira. Emakume gazteen ustez, ama izateko emakume baten adinik egokiena 33 urte dira. Hau da, bai gizon gazteen artean, baita emakume gazteen artean ere, seme-alabak izateko adin ideala 30 urtetik gora jotzen da.


Seme-alabarik ez duten gizon gazteei etorkizunean aita izatea gustatuko ote litzaiekeen galdetu zaie. Hori oso gustuko luketela diote % 46k eta beste % 39k nahikoa gustatuko litzaiekeela. % 11ri gutxi gustatuko litzaieke eta % 3k soilik adierazi dute ez litzaiekeela batere gustatuko seme-alabak izatea.

Seme-alabarik gabeko emakume gazteei galdera bera egin zaie eta erdiek baino gehiagok esan dute etorkizunean seme-alabak izatea asko gustatuko litzaiekeela (% 57); beste % 27k nahikoa gustatuko litzaiekeela adierazi dute, % 10i, aldiz, gutxi gustatuko litzaieke eta % 5i batere ez.

Batera hartzen baditugu etorkizunean seme-alabak izatea asko edo nahikoa gustatuko litzaiekeela diotenak ez da alderik nabaritzen gizon eta emakume gazteen artean (% 85 eta % 84, hurrenez hurren), baina emakumeek gogo handiagoa adierazi dute, gizonek baino proportzio handiagoan esan baitute asko nahiko luketela seme-alabak izatea (emakumeen % 57 eta gizonen % 46).



Etorkizunean seme-alabak izan nahi badituzte ere, seme-alabarik ez duten gizon gazteen % 25ek bakarrik aurreikusten dute bost urteko epean izango dituztela. Seme-alabarik gabeko emakume gazteen kasuan portzentaje hori % 35era heltzen da, emakumeak baldintzatuago baitaude beren ugaltzeko adin tartea mugatuagoa delako.



Horretan sakontzeko, seme-alabarik ez duten 25 eta 29 urte bitartekoek erantzundakoan jarri dugu arreta: gizonen % 39k esan dute segur aski edo agian seme-alabak izango dituztela bost urteko epean; emakumeen kasuan % 54k.



Kultura / Cultura


Euskadiko gazteen bi herenek ia ondo hitz egiten dute euskaraz

Ehunekoa % 24tik % 64ra pasatu da 25 urtetan

Euskararen eguna abenduaren 3an ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadin euskaraz hitz egiten ondo dakitela dioten gazteen ehunekoaren bilakaera aurkezten du.

14an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 64,4k dio ondo dakiela euskaraz hitz egiten. Ehuneko honek igoera nabarmena izan du azken 25 urteetan, 1989an % 24,4 izatetik 2014an % 64,4 izatera pasatu baita.


Igoera hori biztanleria osoan izandakoa baino askoz azpimarragarriagoa da.



2014ko datuei erreparatuz gero, ikus dezakegu 15 eta 19 urte bitarteko taldea dela euskara ezagutzearen ehuneko handien duena (% 81,6k ondo hitz egiten duela dio) eta ehunekoak behera egiten du adinean gora egin ahala: % 59,3koa da 20 eta 24 urte bitartekoen artean eta % 54,4koa 25 eta 29 urte bitartekoen taldean.

Euskaraz ondo hitz egiten dutela dioten ehunekoa handiagoa da Gipuzkoan (% 74,8) Bizkaian baino (% 60,4) eta azken lurralde horretan Araban baino (% 53,6).

Lurraldeen arteko desberdintasun horiek biztanleria osoaren ezagutzari dagokionean ere ikus daitezke.



Dena dela, hiru lurraldeetan eta hiru adin taldeetan gehiengoa osatu dute euskaraz ondo hitz egiten dutela dioten gazteek.

Aztertutako datuak Bizi-baldintzen inkestatik datoz. Inkesta hori bost urtetan behin burutzen du Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak. Gazteen Euskal Behatokiak azterketa hau egiteko eskatu zizkion.

Gainera, Gazteen Euskal Behatokitik [Poziktibity](#) proiektua aipatu nahi dugu. Poziktibity euskararen erabilera sustatzea helburu duen proiektua da eta, dagoeneko, urtebete igaro da kontzeptua lehen aldiz zabaldu zenetik. Kontzeptu edo ideia soil bat baino, bizitza ulertzeko eta gozatzeko modu bat da Poziktibity.


Badakizu zenbat gazte joaten diren kontzertuetara?

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik lauk (% 41,6) galdetu aurreko hiru hilabeteetan kontzerturen batera joan direla diote.

Gazteak biztanleria osoa baino askoz gehiago joaten dira kontzertuetara (biztanleriaren batez bestekoa % 16,8koa baita).

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLAREN OINARRIZKO DATUAK

Kontzertuetara joatea biztanleria-taldearen arabera (Ehunekoa, 2012)



ADIERAZLEA
Kontzertuetara joatea

ALDAGAIA

- ☐ Sexua
- ☐ Adin-tartea
- ☐ Lurralde Historikoa
- ☒ Biztanleria-taldea
- ☐ Lurralde-eremua

KATEGORIAK

- ☒ Biztanleria gaztea
- ☒ Biztanleria osoa

IDAZKUNA

- Biztanleria gazt..
- Biztanleria osoa

DEFINIZIOA: Azkeneko hiru hilabeteetan kontzerturen batera joan den 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / Kulturaren Euskal Behatokia, Euskal Herriko kultura-ohiturak, praktikak eta kontsumoa (2007-2008) / Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Encuesta de hábitos y prácticas culturales 2006/2007 y 2010/2011

Kontzertuetara joatea ohikoagoa da Euskadiko gazteen artean, Espainiakoen artean baino (% 26,5 Espainia osoan).

Eta kultur jarduera hori egin duten Euskadiko gazteek gora egin dute 2008tik 2012ra eta % 30,3 izatetik % 41,6 izatera pasatu dira.

Mutilak neskak baino neurri handiagoan joaten dira kontzertuetara, % 45,9 eta % 37,1, hurrenez hurren.

Kontzertuetara joateari buruzko adierazle hau **Gazteen Adierazleak 2013** ikerketan kontsulta daiteke, “Aisia, kultura eta kirola” atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bat baino ez da hori. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- **Datu base interaktiboa.** Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du 111 adierazleen eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.
- **Gazteen Adierazleen Panela,** ikerketa osatzen duten adierazle guztien informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- **Adierazleen fitxak,** oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- **Laburpen exekutiboa,** aztertutako 111 adierazleen informazioa laburbiltzen duen testu laburra.

Gazteak gainontzeko biztanleak baino neurri handiagoan identifikatzen dira euskararekin


Gazte gehiago sentitu dira diskriminaturik euskara erabili nahi izateagatik, ez jakiteagatik baino

Euskadiko gazteriak euskarari buruz dituen jarrerak eta iritziz batzuk aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Datu horiek orain dela egun batzuk kaleratu zituen Eusko Jaurlaritzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#).

Aurkeztuko ditugun jarrerak hauek dira: alde batetik, zein hizkuntzarekin identifikatzen diren gehien gazteak eta, bestetik, euskara erabili nahi izateagatik edo ez jakiteagatik izandako diskriminazio sententzioa.


Biztanleriari zein hizkuntzarekin identifikatzen den gehien galdetzean, **18 eta 29 urte bitarteko gazteen heren batek euskara aipatzen du (% 34)**; hala ere, gehiago dira gaztelaniarekin identifikatzen diren gazteak (% 48). Beste % 16k hizkuntza biek in identifikatzen dela dio. % 1ek beste hizkuntza batekin identifikatzen da gehien eta gainontzeko % 2k ez du erantzunik eman.

Gazteak Euskadiko gainontzeko biztanleak baino neurri handiagoan identifikatzen dira euskararekin.



Diskriminazio sententzioari dagokionez, **gazteen % 17k euskara erabili nahi izateagatik (eta ezin) diskriminatuak sentitu direla diote** (% 4 askotan eta beste % 13 noizean behin). Dezentz gutxiago dira kontrakoagatik, hau da, euskara ez jakiteagatik, diskriminatuak sentitu diren gazteak (% 5).

Gainontzeko biztanleriarekin alderatuta, gazteak neurri handiagoan sentitu dira diskriminatuak euskara erabili nahi eta ezin izateagatik.



Datu hauek [“Euskara. Jarrera eta iritziak”](#) izeneko ikerketatik datoz. Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saileko Euskararen Aholku Batzordeak eta Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak elkarlanean egin da. Burutzeko Euskadiko Autonomia Erkidegoko 2160 biztanle elkarrizketatu dira, eta horietatik 453 lagun 18 eta 29 urte bitarteko gazteak dira.


Mutil gazteen erdiek astean hiru aldiz edo gehiagotan egiten dute kirola

Nesken kasuan heren batek baino gutxiagok

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik lauk kirol jarduera erregularra egiten dute, hau da, astean hiru aldiz edo gehiagotan. Hau datu orokorra bada ere, sexuaren arabera alde handiak agertzen dira. Gizon gazteen erdiek (% 50,2) kirola egiteko aztura daukate, neska gazteen artean, aldiz, % 29,6 baino ez.

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLAREN OINARRIZKO DATUAK

Kirol-jarduera erregularra sexuaren arabera (Ehunekoa, 2012)



DEFINIZIOA: Astean 3 aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.


ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskal Gazteak Seriea.

Adinaren arabera ere alde esanguratsuak daude: adinean gora egin ahala, gutxiago baitira kirola modu erregularrean egiten dutenak.

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLAREN OINARRIZKO DATUAK



Kirol-jarduera erregularra adin-tartearen arabera (Ehunekoa, 2012)



DEFINIZIOA: Astean 3 aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.


ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskal Gazteak Seriea.

Baina, zeintzuk dira gazteek gehien praktikatzen dituzten kirolak?

Futbola da, zalantzarik gabe, gazte gehienek egiten duten kirola (% 27). Gutxiago dira, diotenez, korrika egitera irteten direnak (% 14), igeriketa egiten dutenak (% 13), muskulazioan (% 12) edo txirrindularitzan aritzen direnak (% 11). Gainerako kirolak gazteen % 10ek baino gutxiagok aipatzen dituzte.

EAEko gazteek gehien praktikatzen dituzten kirolak aztertzeke garaian, ezinbestekoa da, berriro ere, sexua aintzat hartzea. Espero bezala, futbola da nesken eta mutilen artean alderik handienak erakusten dituen kirola: nesken % 6k praktikatzen dute eta mutilen % 44k. Izan ere, futbola da kirol nagusia mutilengan, eta hamargarrena nesken artean.

Ez dago futbolarik mutilak elkartzen dituen moduan neskek batuko dituen kirol-diziplinari. Emakumeek gehien egiten duten kirola korrika egitea da, % 18k aipatua, eta jarraian ibiltzea (% 16), igeri egitea (% 16) eta aerobika edo antzekoak daude (% 15). Horiek dira nesken lau kirol-modalitate nagusienak, eta, gainera, horietan neskek gehiago aritzen dira mutilak baino.



Kirol-jarduerari buruzko datuak [Gazteen Adierazleak 2013](#) ikerketan kontsulta daitezke, “[Aisia, kultura eta kirola](#)” atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak eginiko ikerketa zabal honek gazteriari buruzko 111 adierazle biltzen ditu: batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz; beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik. Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika eskeintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- [Laburpen exekutiboa](#), aztertutako adierazle guztien informazioa laburbiltzen duen testu laburra.
- [Gazteen Adierazleen Panela](#), ikerketaosatzen duten 111 adierazleen informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- [Adierazleen fitxak](#), oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- [Datu base interaktiboa](#). Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta 111 adierazleak aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.

Otsailaren 21a, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna

16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 28,6k euskara dute ama-hizkuntza


Otsailaren 21a [Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna](#) izendatu zuen Unescok 1999an. Haurrak 3 urte bete arte etxean jasotzen duen hizkuntzari deitzen zaio ama-hizkuntza. Hizkuntza-eta kultura-aniztasuna bultzatzea du helburu ama-hizkuntzaren nazioarteko eguna ezartzeak, hau da, munduko herri guztiek darabiltzaten hizkuntza guztiak babestea.

Gazteen Euskal Behatokiak, Euskadiko gazteei dagokien informazio gaurkotua zabaltzeko eginkizunari erantzunik, Euskadiko gazteen ama-hizkuntzari edo lehen hizkuntzari buruzko datuak aztertu ditu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren [V. Inkesta Soziolinguistikoa](#) hartu du oinarri.


Euskadin, euskara da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 28,6en ama-hizkuntza. Ehuneko horren baitan, bi egoera bereizten dira: 3 urte bete arte etxean euskara baino entzun ez dutenena, hau da, gazteen % 17,7ena; eta bi ama-hizkuntza (euskara eta gaztelania) dituztenena, hau da, gazteen % 10,9ena.

EAEko biztanleria osoari dagokionez (16 urtetik gorakoei), euskara ama-hizkuntza dutenen ehunekoa gazteena baino apalagoa da: % 22,9.


Gazteei eta biztanleria osoari dagozkien zifren arteko aldea honi zor zaio: gazteei dagokienez, ama-hizkuntza euskara eta gaztelania duten gazteak % 10,9 dira, eta % 5,4 biztanleria osoan. Euskara ama-hizkuntza bakar dutenen ehunekoak antzekoak dira gazteen artean eta biztanleria osoan.



1991tik 2011ra, hau da, 20 urteko epean, euskara ama-hizkuntza duten gazteen ehunekoa % 20,4tik % 28,6ra igo da. Kasu honetan ere, aldea euskara eta gaztelania ama-hizkuntzatzat dutela dioten ehunekoa datza (% 10,9 2011n; % 3,4 1991n).



Gainera, alde nabarmenak daude lurralde historiko batetik bestera: 2011n, Araban, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 12k diote euskara dutela ama-hizkuntzatzat, bakarrik edo gaztelaniarekin batera; Bizkaian, ehuneko hori % 20,6koa da; Gipuzkoan, aldiz, % 49,3koa da.



Gazteen Euskal Behatokiko web orriaren [estatistiketan](#) ("Euskara" atalean, hain zuzen ere) 15 eta 29 urte bitarteko gazteei buruzko datuak kontsulta daitezke.



Osasuna / Salud

Abenduak 1: HIESaren aurkako Munduko Eguna


2014an, Giza Inmunoeskasiaren Birusak (GIB) eragindako 43 infekzio berri egon ziren 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean

HIESaren aurkako Munduko Eguna dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak Eusko Jaurlaritzako HIESaren Prebentzio eta Kontrolaren Planak GIB infekzio berriei buruz emandako datuak aurkezten ditu.

Datuon arabera, 2014an, Euskadin, 152 GIB infekzio berri egon ziren. Horietatik, 43 infekzio berri 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean eman ziren, hau da, guztien % 28a.

GIB infekzio berrien bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu zenbaki absolutuetan ez dela antzematen joera nabarmenik. 2009an 53 kasu berri erregistratu ziren; aldiz, 2013an, 32. Edozein kasutan, gazteen artean gertatutako GIB infekzio berriek egonkor dihardute.

Azkenik, argi dago fenomeno honek gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino presentzia handiagoa duela. Izan ere, 2014an 43 GIB infekzio berri agertu baziren, 33 gizonen artean gertatu ziren, guztien % 77 hain zuzen ere.



GIB infekzio berrien tasa, gazteen artean, 1,5koa da, adin-talde bereko 10.000 laguneko. Tasa hori mutilen artean 2,2koa da; nesken artean, aldiz, 0,7koa.


Gazteen Euskal Behatokiaren [Estatistiketan](#) **osasunari** eskaintzen zaion atalean, GIB infekzio berriei dagozkien datuak aurki daitezke.

Azken hamar urteetan trafiko-istripuen ondorioz hildako gazteen tasak 15 puntu baino gehiago egin du behera

Trafiko-istripuen ondorioz hildakoen oroipenaren Munduko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k trafiko-istripuetan hildako 15 eta 29 urte bitarteko gazteei buruzko datuak aurkezten ditu. Datuok, webgunearen [Estatistikak on line](#) atalean eskuragarri daude eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bildu ditu.

2013an trafiko-istripuen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen tasa 2,1ekoa zen, adin talde horretako 100.000 lagunekoa. Hamar urte aurrerago, 2003an, 100.000ko tasa hori 17,9koa zen. Beraz, tasa horrek 15 puntu baino gehiago egin du behera.


Alde nabarmena antzematen da gizonen eta emakumeen artean, lehenengoan kalterako. 2013an tasa hau 100.000 lagunekoa 4,1ekoa da gizonen artean; emakumeen artean, oster, 0koa da.



Euskadiko emakumezko 1000 nerabetik 9,3 haurdun geratu ziren 2013an
2013an Euskadiko 155 nerabek haurdunaldia borondatez eten zuten


Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzuaren arabera, Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko 155 nerabek haurdunaldia eten zuten 2013an. Beste alde batetik, INEren Jaiotza Erregistroaren arabera, 2013an, 15 eta 17 urte bitarteko 80 nerabek haurra izan zuten EAEn.

Bilakaerari erreparatuta, HBEen kopuruak behera egin du 2012 eta 2013 bitartean eta jaiotza-kopurua egonkor dabil.



Datu hauek erabiliz nerabeen haurdunaldien tasa osatu du [Gazteen Euskal Behatokia](#)k. Tasa horrek oso informazio sintetiko eta baliagarria ematen du, hainbat erakundek sexu-osasunari buruz gazteei zuzenduta garatzen dituzten esku-hartzeen eraginaren jarraipena egiteko.

Nerabeen haurdunaldien tasa kalkulatzeko, 15 eta 17 urte bitarteko neskek urte jakin batean izandako haurdunaldien borondatezko etenduren kopurua eta izandako erditzeena gehitzen dira eta emaitza adin horietako gazteen kopuruarekin erlazionatzen da. Tasa 9,3koa da 2013an EAEko 15 eta 17 urte bitarteko 1000 emakume gazteko. Tasa hori handitu zen 2003tik 2007ra; baina 2007tik aurrera egonkortu egin da eta 9 puntu inguruan geratu da, adin-talde horretako 1000 emakumeke.



Azterketa honetan eskainitako datuak Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan kontsulta daitezke, [Adierazleen Sistema](#)ren **Osasuna** izeneko atalean.

Urriaren 10: Osasun Mentalaren Munduko Eguna

Euskadiko gazteen % 13,7k antsietate edo depresio arazoren bat izan du

Osasun Mentalaren Munduko Eguna dela-eta, antsietateak eta depresioak 15 eta 29 urte bitarteko gazteengan duen intzidentziari buruzko datuak aurkezten ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Osasun Mentalaren Eguna urtero ospatzen da. Urte bakoitzean emozioen edo jokabidearen nahasmenduren bat aukeratzen da eta kanpaina zabal baten bidez, munduaren arreta horren identifikazio, tratamendu eta prebentziora bideratzen saiatzen da.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2013an eginiko *Euskal Osasun Inkestatik* (2013ko EAEOI) hartutako datuen arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 13,7k antsietate edo depresio arazoren bat izan zuten inkesta egin aurreko lau asteetan.


Azken urteetan antsietate edo depresio arazoak izan dituzten gazteen portzentajeak gora egin du, 2002ko % 12,2tik 2013ko % 13,7ra.

Arazo hauek nesken artean maizago gertatzen dira mutilen artean baino (% 18,7 eta % 9 hurrenez hurren). Bestetik, 20 eta 24 urte bitartekoen artean ere gehixeago ematen dira (% 16).

OSASUNAREN ALORREKO OINARRIZKO DATUAK



Antsietate eta depresio-arazoen prebalentzia (Ehunekoa, 2013)



DEFINIZIOA: Antsietate edo/eta depresio-arazoak dituzten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.


ITURRIA: Eusko Jauriaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta.

Antsietate eta depresio arazoak ohikoagoak dira Euskadiko biztanleria osoan gazteen artean baino. Izan ere, **2013an, biztanleria osoaren % 20k inkesta egin aurreko lau asteetan antsietate edo depresio arazoak izan zituen; gazteen artean, ikusi dugun bezala, % 13,7k.**

OSASUNAREN ALORREKO OINARRIZKO DATUAK



Antsietate eta depresio-arazoen prebalentzia biztanleria-taldearen arabera (Ehunekoa, 2013)



DEFINIZIOA: Antsietate edo/eta depresio-arazoak dituzten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

ITURRIA: Eusko Jauriaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta.

Antsietate eta depresioari buruzko adierazle hau **‘Gazteen Adierazleak 2013’** ikerketan kontsulta daiteke, “Osasuna” atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bat baino ez da hori. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:


- **Datu base interaktiboa.** Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du 111 adierazleen eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.
- **Gazteen Adierazleen Panela,** ikerketaosatzen duten adierazle guztien informazioa biltzen duen laburpen-aula.
- **Adierazleen fitxak,** oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- **Laburpen exekutiboa,** aztertutako 111 adierazleen informazioa laburbiltzen duen testu laburra.

Euskadiko gazteen artean droga-mendetasunen ziozko tratamendua hasi dutenen kopuruak behera egin du

2013an, 15 eta 29 urte bitarteko mila gaztetik bik hasi zuten droga-mendetasunen ziozko tratamendua

Droga-mendetasunen ziozko tratamendu-hastapenen kopurua funtsezko adierazlea da drogen erabilerak biztanleengan duen eragina neurtzeko. Adierazle horrek zera adierazten du: urte jakin batean, substantzia psikoaktiboen abusua edo mendekotasuna dela-eta, tratamendua hasten duen pertsona-kopurua. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio Zuzendaritzaren Toxikomaniei buruzko Informazio Sistemak (TIS) prestatzen du adierazle hori.


2013an, 15 eta 29 urte bitarteko 623 gaztek hasi zuten droga-mendetasunen ziozko tratamendua Euskadin. Azken urteetan, 2003an erregistratu zen tratamendu-hastapen kopururik handiena: 820 kasu. Hortik aurrera, beheranzko joera leuna gertatu da.



Era berean, kasuen kopuruaren beherakadaz gain, azpimarratu beharra dago 15 eta 29 urte bitarteko gazteak 2013an tratamendua hasi zuten guztien % 23 direla.

Legez kanpoko drogen kontsumo-tasarik handienak gizonezkoen artean agertzen dira; hori dela eta, **tratamendua hasten duten gazteen gehiengo zabala (% 84) gizonezkoak dira**. Proportzio hori ikertutako aldi osoan mantentzen da.

Droga-mendetasunen ziozko tratamendua hasi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, sexuaren arabera (zenbaki absolutuak)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuak oinarri hartuta

Tratamendu-hastapenen tasa, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko mila laguneko zenbatek hasi duten alkohola edo bestelako drogen ziozko tratamendua 2013an kalkulatz gero, zera antzeman daiteke: EAEko mila gaztetik bik hasi zutela droga-mendetasunen tratamendua (gazteen artean tasa 2,03koa da). Tasa hori nabarmen handiagoa da gizon gazteen artean (3,4 milako) emakume gazteen artean baino (0,7 milako). Eta handiago da ere gazteen artean biztanleria osoaren artean baino (1,2 milako).

2013an tratamendua eragiten duen droga nagusia kannabisa da. 295 tratamendu-hastapen eragin ditu, guztiaren % 47a, hain zuzen ere. **Haren atzetik kokaina dator:** 137 tratamendu-hastapen, guztiaren % 34a. Bi substantzia hauen tratamendu-hastapenen bilakaera ezberdina izan da urteotan. 2000 eta 2013 artean kannabisak etengabeko igoera izan du; 2010an, estrainekoz, kannabisa tratamendu-hastapenen droga nagusia bihurtu zen kokainaren ordeaz. Izan ere, kokainak urteotan behera egin du tratamendu-hastapenen droga nagusia bezala.

Droga-mendetasunen ziozko tratamendua hasi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, substantziaren arabera (zenbaki absolutuak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuak oinarri hartuta

Irailaren 10a: Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna

2012an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean suicidio tasa 3koa zen (100.000 gazteko) EAEn


Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna dela-eta, suizidioak 15 eta 29 urte bitarteko gazteengan duen intzidentziari buruzko datuak aurkeztu nahi ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzuak emandako datuen arabera, 2012an 15 eta 29 urte bitarteko 9 gazte hil ziren suizidioa dela-eta. Horrek adin berberako 100.000 gazteko tasa 3koa izatea dakar eta suizidioa gazteen artean bigarren heriotza arrazoi moduan kokatzen du, trafiko istripuen atzetik.

Suizidioagatik hil ziren 9 gaztetik 8 mutilak ziren. Honen ondorioz, 100.000 mutil gazteko tasa 5,2koa izan zen; emakumeena, aldiz 0,7koa.

OSASUNAREN ALORREKO OINARRIZKO DATUAK


Suizidioen heriotza tasa sexuaren arabera (100.000ko tasa, 2012)



DEFINIZIOA: Suizidioen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen zenbatekoa adin-tarte bereko 100.000 laguneko.

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Heriotzen estatistika.

Suizidioaren ondoriozko heriotzen tasa altuagoa da biztanleria osoan gazteen artean baino. 2012an 180 lagun bere burua hil zuten Euskadin. Hori dela-eta 100.000 biztanleko tasa 8,2koa da oro har.



Suizidioari buruzko adierazle hau **Gazteen Adierazleak 2013** ikerketan kontsulta daiteke, **“Osasuna”** atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bat baino ez da hori. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- **Datu base interaktiboa.** Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du 111 adierazleen eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.
- **Gazteen Adierazleen Panela,** ikerketaosatzen duten adierazle guztien informazioa biltzen duen laburpen-taula.

- **Adierazleen fitxak**, oinarrizko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- **Laburpen exekutiboa**, aztertutako 111 adierazleen informazioa laburbiltzen duen testu laburra.


Euskadin 15 eta 24 urte bitarteko gazteen erdiek bakarrik jaten dute fruta egunero

Eta herenak baino gutxiagok jaten dute arraina astean hirutan edo gehiagotan


Maiatzaren 28an **Nutrizioaren egun nazionala** ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadiko gazteen elikadurari buruzko datu batzuk plazaratu ditu. Datuok 15 eta 24 urte bitarteko gazteei dagozkie.

Zenbait elikagai jateko ohitura ote duten galdetzean, Euskadiko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen erdiek bakarrik diote egunero jaten dutela fruta freskoa (% 49k) eta heren batek baino gutxiagok adierazi dute arraina jateko gomendioak jarraitzen dituztela, hau da, astean hirutan edo gehiagotan jaten dutela (% 27k).

Gure erkidegoko 15 urte eta gehiagoko biztanleria osoarekin alderatuta, ikus dezakegu gazteek portzentaje txikiagoak dituztela fruta eta arrainaren kontsumoan.



Bestalde, gutxitan kontsumitu beharko liratekeen beste produktuak (hala nola, gozokiak edota azukredun freskagarriak) zenbatero hartzen dituzten galdetu zaie gazteei. Holako produktuak egunero hartzen dituztenen ehunekoak txikiak diren arren, biztanleria osoan jasotakoak baino pixka bat handiagoak dira gazteen artean.



Fruta eta arrainaren kontsumoan ez dago alde esanguratsurik nesken eta mutilen artean, baina gozoki eta azukredun freskagarrien kontsumoari dagokionez, aldiz, mutilek neskek baino zertxobait gehiago diote egunero hartzen dituztela produktu hauek.

15-24 urte bitarteko gazteak (%)	Mutilak	Neskak
Gozokiak egunero kontsumitzea	41	34
Azukredun freskagarriak egunero kontsumitzea	8	6

Aurreko jakien kontsumoari buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2013an eginiko *Euskal Osasun Inkestatik* ([2013ko EAEI](#)) hartu ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Euskadiko gazteen obesitate tasa % 5,4koa da


Obesitate tasa handitu egin da azken urteotan

Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailak aldiro burutzen duen Euskadiko [Osasun inkestaren](#) datuen arabera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 5,4 obesoa da. Hala ere, ehuneko hori biztanleria osoan jasotakoa (% 13,2) baino txikiagoa da.

Pertsona baten Gorputz Masaren Indizea 30 baino handiagoa denean obesotzat jotzen da persona hori. Gorputz Masaren Indizea (GMI) honela kalkulatzen da: dugun kilo kopurua zati altuera (metrotan) ber bi.


$$\text{GMI} = \frac{\text{Pisua (kg)}}{\text{Altuera (m)}^2}$$

Obesitate tasa (talde bateko obesoen portzentajea) handitu egin da azken urteotan eta 2002an % 3,4 izatetik 2013an % 5,4 izatera pasatu da gazteen kasuan, eta % 9,9tik % 13,2ra biztanleria osoari dagokionean.




Gizon gazteek emakume gazteek baino obesitate tasa handiagoa dute (% 6,0 eta % 4,8, hurrenez hurren).

Obesitate tasarik handiena 25 eta 29 urte bitartekoek dute (% 7,4).



25 eta 29 urte bitarteko gazteek obesitate tasa handiagoa izateak harreman izan daiteke, besteak beste, talde horretako kideek gainontzeko gazteek baino jarduera fisiko gutxiago egitearekin. 25 eta 29 urte bitartekoen taldean gehienek (% 72,1) elkarriketatuak izan baino astebete lehenago jarduera fisiko neurritsua edo bizia egin badute ere, portzentaje hori 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztien batez bestekoa (% 75,3) baino baxuagoa da.

Gizon eta emakume gazteen kasuan, aldiz, ez da erlazorik antzematen jarduera fisikoa gehiago egitearen eta obesitate gutxiago izatearen artean, mutilek adierazle bietan (obesitate eta jarduera fisikoa) puntuazio altuagoak baitituzte.



Datuok [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu ditu eta bere web orriko [estatistikan](#) kontsulta daitezke.



Partaidetza / Participación

Ziberaktibismoa parte-hartze sozialerako modu berri legez ageri da Euskadiko gazteen artean

Euskadiko gazteen % 21 ziberaktibismoan dabil

Gazteen Euskal Behatokiak, joan den urriaren 22an, *Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin* ikerketaren emaitza nagusiak aurkeztu zituen. Ikerketa hau Euskadiko Gazteen Kontseiluaren (EGK) laguntzarekin burutu zen.

Euskadiko gazteen % 21ek dio azken urtean eztabaidaren bat piztu edo salaketaren bat egin duela interneten, sare sozialetan edo WhatsApp bezalako mugikorrenzako aplikazioetan, bai mezu bat idatziz edo irudi edo bideo baten bitartez, hau da, ziberaktibismoa jotzen du.

Gainera, % 32,1k dio, eztabaida edo salaketa berak piztu ez arren, horren alde agertu dela (bertuteatuz, mezuak, irudiak edo bideoak berbidaliz, profileko argazkia aldatuz...), edota horri buruzko iritzia eman duela bitarteko hauetako batean (sare sozialak, WhatsApp, blogak...).


Ikasketa-mailak, politikarekiko interesak edo asoziazionismoak dute eragin handiena interneteko eztabaida eta salaketetan parte-hartzean.

Goi-mailako ikasketak bukatu dituztenen edo egiten ari direnen artean salaketak edo eztabaidak sustatu dutenen portzentajea % 23,8koa, maila apalagoko ikasketak dituztenen % 14,9ren aldean.

Politikan interesa duten gazteen % 29,7k hartu du parte interneteko eztabaida edo salaketaren batean, politikan interesik ez duten gazteen % 12,7ren aldean.

Asoziatutako gazteek asoziatu gabekoek baino gehiago hartu dute parte interneteko eztabaidak edo salaketak sustatzen (% 24,4 eta % 16,5, hurrenez hurren).

Ziberaktibismoan dabiltzan gazteak, politikarekiko interesaren eta ikasketa mailaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Gazteak eta 2015eko hauteskundeak

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek baino gehiagok (% 59) maiatzean izandako udal eta foru hauteskundeetan interes handia edo dezenteko interesa izan dutela diote.

Gazteen interesa maila biztanleria osoak sentitutakoaren antzekoa izan da (% 56, batez beste).


Udal hauteskundeetara dagokienez, gazteen erdiek baino gehiagok (% 58) diote bazutela hauteskunde jokaera (botoa eman ala botorik ez eman) erabakita hauteskunde kanpaina hasi baino lehen. Aitzitik, % 13k hauteskunde egunean bertan erabaki zuen zer egin. Edozelan ere, % 90 konforme dago hartutako erabakiarekin.

Gazteek biztanleria osoak baino beranduago hartu zuten erabaki hori; biztanleria osoan % 67k, batez beste, botoa nori eman ala ez eman pentsatuta baitzuten hauteskunde kanpaina hasi baino lehen.



Urte bukaeran izango diren hauteskunde orokorreari begira, gazteek uste dute EAJ-PNV izango dela Euskadi mailan boto gehien lortuko duen alderdia (% 57). Hala ere, alderdi hori ez da gazteen aukerarik gustukoena, EH Bildu baizik (% 31). Atzetik geratzen dira EAJ-PNV (% 17) eta Podemos – Ahal dugu (% 14). Bestalde, gazteen ia heren batek ez du esaten zein aukera hobesten duen.

EH Bildu hobesten duten gazteen ehunekoak biztanleria osoan aukera hori aipatzen dutenen batez bestekoa (% 15) bikoizten du. Biztanleria osoan alderdirik gustukoena EAJ-PNV da (% 29).



Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu ditu, Eusko Jaurlaritzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) 2015eko ekainean egindako inkesta baten emaitzak oinarri hartuta. Emaitza horiek "[Hauteskunde portaera](#)" izenburuarekin uztailearen 3an argitaratutako txostenean daude.



Zientzia Astea 2015

Euskadiko 15 urteko gazteen zientzietarako gaitasuna ELGA/OCDE osatzen duten herrialdeen batez bestekoaren gainetik dago


Azaroaren 4tik 8ra Euskadiko hiriburuetan **Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren XV. Astea** ([Zientzia Astea](#)) ospatuko dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k zenbait datu eskaini nahi ditu zientzia eta teknologiaren arloan Euskadiko gazteek duten prestakuntzari buruz.

Hasteko, 15 urteko ikasleek PISA ebaluazioan (hiru urtean behin egiten den Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa) duten zientzietarako gaitasunari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu 2012an (azken datuak orduko ebaluaziokoak baitira) Euskadi ELGA (gaztelaniaz OCDE) osatzen duten herrialdeen batez bestekoaren gainetik dagoela: 506 puntu Euskadi eta 501 ELGAko batez bestekoa. Euskadiko puntuazioa Espainiarenaren gainetik ere badago (496).

Euskadiko 15 urteko mutilen zientzia-gaitasuna adin horretako neskeena baino handixeagoa da (510 eta 501, hurrenez hurren).

HEZKUNTZAREN ALORREKO OINARRIZKO DATUAK

15 urteko ikasleen zientzia gaitasuna lurralde-eremuaren arabera & sexuaren arabera (Puntu-kopurua, 2012)



ADIERAZLEA

15 urteko ikasleen zientzia gaitasuna

ALDAGAIA

- ☒ Sexua
- ☒ Lurralde-eremua

KATEGORIAK

- ☒ Guztira
- ☒ Gizonak
- ☒ Emakumeak
- ☒ EAE
- ☒ Espainia
- ☒ ELGA

IDAZKUNA

- Guztira
- Gizonak
- Emakumeak
- EAE
- Espainia
- ELGA

DEFINIZIOA: EAEko 15 urteko ikasleek PISA ebaluazioan lortutako batz besteko puntuazioa, zientzietarako konpetentziari dagokionean.

ITURRIA: ISEI-IVEI, Pisa 2012 Euskadi.

Bestetik, Zientzietako, Matematiketako eta Teknologiako goi-mailako graduazioa duten 20 eta 29 urte bitarteko biztanleen tasak hartuko ditugu aintzat. Tasa horrek zera adierazten du: 20 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek eskuratu duten hirugarren mailako titulazioa (honako hauek barne hartzen dituena: unibertsitate-irakaskuntza —CINE 5A— nahiz goi-mailako heziketa-zikloak, hau da, CINE 5B, baita doktoretzak eta masterrak ere, CINE 6) Zientzietan, Matematiketan edo Teknologian, adin-talde bereko mila laguneko.


Tasa hori % 29,4koa izan da 2010ean (eskuragarri daukagun azken datua), eta gorakada nabarmena izan du 2000tik aurrera (urte hartan % 20,2koa baitzen).

Tasa hori askoz handiagoa da mutilen artean nesken artean baino (% 41,2 eta % 17,3, hurrenez hurren), eta Europako (% 15,4) eta Espainiako (% 13,9) batez bestekoak baino askoz ere garaiagoa da Euskadin.

HEZKUNTZAREN ALORREKO OINARRIZKO DATUAK



Zientzia eta teknologian graduatuen tasa lurralde-eremuaren arabera & sexuaren arabera (1.000ko tasa, 2010)



DEFINIZIOA: Zientzia, matematika edota teknologian ikasketa tertziarioak (CINE 5A, 5B eta 6) burutu dituzten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen zenbatekoa aipatzen den urtean eta adin-tarte horretako 1.000 biztanleko.

ITURRIA: ISEI-IVEI, Hezkuntzarako Adierazleen Euskal Sistema.

Bi adierazle hauek [Gazteen Adierazleak 2013](#) ikerketan kontsulta daitezke, "Hezkuntza" atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bi baino ez dira horiek. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik. Kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak ([ISEI-IVEI](#)) argitaratutakoak dira.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du ikerketa honek, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu adierazleak.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- [Datu base interaktiboa](#). Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du 111 adierazleen eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.
- [Gazteen Adierazleen Panela](#), ikerketa osatzen duten adierazle guztien informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- [Adierazleen fitxak](#), oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- [Laburpen exekutiboa](#), aztertutako 111 adierazleen informazioa laburbiltzen duen testu laburra.

2015eko hirugarren hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 26,7koa da

Bigarren eta hirugarren hiruhilekoaren artean puntu bat baino gehiago jaitsi da

Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren 2015eko hirugarren hiruhilekoari dagozkion datuak argitaratu berri direla-eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).


Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitartekoen datuak helarazi dizkio. 2015ean Eustatek kalkulatzeko metodologia aldatu du zertxobait, fenomenoari hobeto heltzeko asmoz eta, hori dela-eta, ezin izango dugu oraingo datuak aurreko urteetakoekin konparatu (horiek beste metodologia batekin kalkulatuta baitzeuden).

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du langabezia-tasak. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 26,7 da 2015eko hirugarren hiruhilekoan.

Gizon eta emakume gazteen langabezia-tasa ia berdina da (% 26,7 eta % 26,6, hurrenez hurren) eta lurralde historikoei joz gero, ikus dezakegu Gipuzkoan gazteen langabezia-tasa beste lurraldeetan baino baxuagoa dela (% 23,9, hain zuzen ere). Araban, aldiz, tasarik handiena jaso da (% 29,7).

Dena den, bilakaera ez da talde guztietan berdina izan. Gizonen artean behera egin du; emakumeen artean, oster, zertxobait egin du gora. Era berean, Bizkaia eta Gipuzkoan behera egin du; bitartean, Araban, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz, gora egin du.



Datuok [Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistiketan](#) daude eskuragarri, Lanari dagokion atalean, hain zuzen ere.

2015eko bigarren hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 28koa da

Gazteen langabezia-tasa biztanleria osoarena baino 13 puntu handiagoa da

Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren 2015eko bigarren hiruhilekoari dagozkion datuak argitaratu berri direla-eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitartekoen datuak helarazi dizkio. Oraingoan Eustatek kalkulatzeko metodologia aldatu du zertxobait, fenomenoari hobeto heltzeko asmoz eta, hori dela-eta, ezin izango dugu oraingo datuak aurreko urteetakoekin konparatu (horiek beste metodologia batekin kalkulatuta baitzeuden).

Zer adierazten du langabezia-tasak?

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du langabezia-tasak. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

Zein da gazteen langabezia-tasa 2015eko bigarren hiruhilekoan?

EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 28,0 da 2015eko bigarren hiruhilekoan, biztanleria osoarena baino 13 puntu handiagoa.


Badago alderik sexu edo lurralde historikoaren arabera?

Gizon gazteen langabezia-tasa emakume gazteena baino handiagoa da (% 30,3 eta % 25,5, hurrenez hurren).

Lurralde historikoei joz gero, ikus dezakegu Gipuzkoan gazteen langabezia-tasa beste lurraldeetan baino baxuagoa dela (% 26,1, hain zuzen ere). Bizkaian, aldiz, tasarik handiena jaso da (% 29,6).

Biztanleria osoaren datuak aztertzean ere ikus daiteke emakumeen artean eta Gipuzkoan daudela tasarik baxuenak.

**Langabezia-tasa EAEn 2015eko bigarren hiruhilekoan.
Gazteria eta biztanleria osoaren arteko alderaketa (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTATEk emandako datuak (BJA) oinarri hartuta


16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa jaitsi da elkarren segidako bigarren hiruhilekoz

Gazteen langabezia-tasak lau hamarrenetako jaitsiera izan du 2015eko lehen hiruhilekoan; biztanleria osoarena, aldiz, pixka bat igo da

Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren 2015eko lehenengo hiruhilekoari dagozkion azkeneko datuak argitaratu berri direla-eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitartekoak datuak helarazi dizkio.


Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du **langabezia-tasak**. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

2015eko lehenengo hiruhilekoan EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 27,7 da, hau da, aurreko hiruhilekoan jasotakoa (% 28,1) baino lau hamarren txikiagoa eta 2014ko hiruhileko berdinean izandakoa baino 2,4 puntu txikiagoa.




EAEko biztanleria osoaren langabezia-tasak hiru hamarreneko igoera txikia izan du; gazteriarenak, aldiz, jaitsi da elkarren segidako bigarren hiruhilekoz. Hala ere, gazteen langabezia-tasa biztanleria osoarena baino askoz handiagoa da, ehuneko 13 puntu handiagoa, hain zuzuen ere.

2015eko lehenengo hiruhileko honetan gizon gazteen langabezia-tasa emakume gazteena baino handiagoa da. Sakonago aztertuz gero, zera ikus dezakegu: 16 eta 29 urte bitarteko gizonen langabezia-tasa ehuneko puntu bat igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero baina 2014ko batez bestekoarekin konparatzen badugu ehuneko 1,7 puntu jaitsi dela esan dezakegu. Emakume gazteen kasuan langabezia-tasa ia bi puntu jaitsi da aurreko hiruhilekotik hona eta 2014ko batez bestekoaren parean kokatzen da.



Azkenik, lurralde historikoei joz gero, honako hau ikusten dugu: Gipuzkoan gazteen langabezia-tasa jaitsi da eta Araban, aldiz, igo da, Bizkaian berdin jarraitzen duen bitartean. Dena den, Gipuzkoa da gazteen langabezia-tasarik baxuena duen lurraldea eta Araba altuena duena. Izan ere, 2013tik hona Araban jasotzen da gazteen langabezia-tasarik handiena.



Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, Lana ataleko Jarduera, Okupazioa eta Langabezia azpiatalean.


2014ko azken hiruhilekoan zertxobait jaitsi da Euskadiko gazteen langabezia-tasa

Gazteen langabezia-tasak (% 28,1) biztanleria osoarena (% 14,5) bizkoizten du oraindik ere

Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren 2014ko laugarren hiruhilekoari dagozkion azkeneko datuak argitaratu berri direla-eta, EAEko gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitarteko datuak helarazi dizkio.


Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen duten pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du **langabezia-tasak**. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

2014ko laugarren hiruhilekoan EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 28,1 da, hau da, hirugarren hiruhilekoan jasotakoa (% 28,9) baino zortzi hamarren txikiagoa eta 2013ko azken hiruhilekoan izandakoa baino 1,4 puntu txikiagoa.




Urteko langabezia-tasaren kalkulua lau hiruhilekoen batezbesteko aritmetikoa kalkulatzuz lortzen da. Kalkulu honen arabera, EAEko 16 eta 29 urte bitarteko lagunen langabezia-tasa % 28,5 da, 2013an % 29,2 zen bitartean. 2007tik, gazteen langabezia-tasa % 5,7 zenean, zifra hori boskoiztu egin da.


Bestalde, gazteen langabezia-tasa eta EAEko biztanleria osoarena alderatzen baditugu, zera ikus dezakegu: gazteen langabezia-tasak biztanleria osoarena ia bikoizten duela eta proportzio hori ez dela 2007tik aldatu.



Langabezia-tasa sexuaren arabera aztertzen badugu, ikus dezakegu gizon gazteen langabezia-tasa bi puntu jaitسي dela 2013tik 2014ra. Hala ere, langabeziak eragin handiagoa du mutilen artean nesken artean baino.



Azkenik, lurralde historikoei joz gero, honako hau ikusten dugu: Araban eta Bizkaian gazteen langabezia-tasa jaitsi dela eta Gipuzkoan, aldiz, igo dela. Gipuzkoak oraindik tasarik baxuena badu ere, 3,3 puntuko igoera izan du 2013tik 2014ra.



Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, Lana ataleko Jarduera, Okupazioa eta Langabezia azpiatalean, zehazki.

2015ean 30 urtetik beherako gazteen % 37,6k soilik dute lana Euskadin


Okupazio-tasa ia bi puntu igo da 2013tik hona, orduan izan baitzen tasarik baxuena

Maiatzaren 1ean **Lanaren Nazioarteko Eguna** ospatzen dela eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen okupazio-tasari buruzko datu batzuk azaltzen ditu. Horretarako Euskal Estatistika Erakundeak ([Eustat](#)) emandako datuak hartuko ditu oinarri. Datuok Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) datoz.


2015eko lehen hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen okupazio-tasa % 37,6koa da, hau da, adin tarte horretako gazteen herenak baino gehixeagok lan ordaindua dute.

Okupazio-tasa zertxobait handiagoa da Gipuzkoan (% 38,6) eta baxuagoa Araban (% 35,2); Bizkaian Euskadiko batez bestekoaren bezalakoa da (% 37,6).


Euskadiko gazteen okupazio-tasaren bilakaera aztertuz gero, egiaztatzen da 2009tik 2013ra izandako lan-suntsiketa, bai eta 2014an okupazioak igoera txikia izan zuela ere.



Lurralde historikoetan okupazio-tasak azken hamar urteotan izandako bilakaerak zera adierazten du, lan-suntsiketa handiagoa izan dela Araban: lurralde horrek gazteen okupazio-tasarik handiena izan zuen 2005ean (% 59,1) eta 2015eko lehen hiruhilekoan, aldiz, baxuena (% 35,2).




Bestalde, **sexuaren araberako bilakaerari** erreparatzen badiogu, ikus dezakegu 2009ra arte gizon gazteek emakume gazteek baino okupazio-tasa altuagoak zituztela, baina krisialdiak ekarritako lan-suntsiketak eragin handiagoa izan duela gizon gazteengan eta ordutik hona enplegu-tasa baxuagoak dituztela. Dena dela, aipatu behar da 2014tik aurrera gizon gazteen okupazio portzentajeak pixka bat handitu direla eta 2015eko lehen hiruhilekoan gizon eta emakume gazteen zifrak antzekoak direla.



Azkenik, **Euskadiko gazteen okupazio-tasa Espainiako gazteenarekin alderatzen badugu** ikus dezakegu Euskadin 30 urtetik beherako gazteen artean enplegua dutenen portzentajea (% 37,6) Espaina osoari dagokiona baino handiagoa dela (% 35,5, 2014ko azken hiru hilekoan, hori baita eskuragarri dagoen azken datua).

Eta Euskadin ez bezala, Espainian lanean dauden gizon gazteen portzentajea (% 36,4) emakume gazteena (% 34,6) baino handiagoa da.



Euskadiko gazteei buruzko datuak [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, Lana ataleko “Jarduera, Okupazioa eta Langabezia” izeneko azpiatalean, zehazki.

Lana duten EAEko 18 eta 34 urte bitarteko emakumeek gizonek baino 200 euro gutxiago irabazten dituzte

Emakume gazteek neurri handiagoan dute lanaldi partziala familia-betebeharrak direla-eta


Otsailaren 22an **Emakume eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Eguna** dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAEko gizon eta emakume gazteen enpleguari eta soldaten arteko desberdintasunari buruzko datu batzuk zabaldu nahi ditu.

Aztertutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak berak burututako ikerketa batetik datoz, "Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian" izenekoa, hain zuzen ere. Ikerketa horrek 18 eta 34 urte bitarteko EAEko gazteei beren etxeetan egindako inkestak hartzen ditu oinarri.

EAEko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen erdiak (% 45,2) lanean daude (% 44,0 gizonen artean eta % 46,4 emakumeen artean) eta beste % 27,4 ikasten. Langabeziak % 22,7ri eragiten die.

Lanean dauden emakumeen portzentajea gizonena baino altuagoa da (% 46,4 eta % 44,0) baina horrek genero-alde sakona estaltzen du: emakumeek gizonek baino 200 euro gutxiago irabazten dituztela hilerio (1017 € eta 1212 € hurrenez hurren).

18 eta 34 urte bitarteko gazteen hileko soldata garbia, sexuaren arabera



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013)*

Soldata-alde hau azaltzen duen arrazoietakoa bat aurkitu nahi badugu, emakumeen eta gizonen lanaldira jo behar dugu. Lanaldi partzialean dabiltzanen portzentajea askoz handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 37 eta % 17, hain zuzen ere). Bai emakume zein gizonen artean lanaldi hori izateko arrazoia besterik ez dietela eskaini izan arren, hamar emakumetik batek familia betebeharrei egozten diete lanaldi osoan lanean ez egotea.

Emakumeen artean lanaldi partzialen prebalentzia handiagoa izateak haien soldatetan eragina du. Izan ere, lanaldi partzialean ari direnen batez besteko soldata 671€koa den bitartean, lanaldi osoan dabiltzatenen soldata 1280€koa da.

Beraz, lan-merkatuan emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa den arren, beraien lan baldintzak oraindik ere gizonenak baino askoz kaskarragoak dira.

Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa % 7,2koa da Euskadin


Euskadi Europako batez bestekoaren azpitik dago eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasari dagokionez

2014-2015 ikasturtea amaitzeaz dagoela eta, Gazteen Euskal Behatokiak eskola modu goiztiarrean utzitakoen datuak aztertu ditu. Datuok [Eustatek](#) aurkeztu ditu “[2020 Europa adierazleak](#)” atalean.

Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasak honako hau adierazten du: gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditu (CINE 2) eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasketa edo prestakuntzarik jaso gabeko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.


Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasak behera egin du poliki-poliki azken urteetan 2014an % 7,2 izan arte. Tasa hau zertxobait altuagoa da gizonen artean (% 7,7) nesken artean baino (% 6,6). Aldea azken urteetan murriztu da, batez ere gizonen tasak behera egin duelako. Izan ere, 2004an nesken tasa bikoizten zuen.

**Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasaren bilakaera (2001-2014)
Euskadiko 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)**



Iturria: Euskal Gazteen Behatokiak egina, EUSTATEN datuak oinarri hartuta (2020 Europa adierazleak)

Europar Batasuneko 28 herrialdeen datuei erreparatzen badiugu, Euskadi Europako batez bestekoaren azpitik kokatzen dela ikus dezakegu (% 11,1). Espainiak, aldiz, eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasarik altuena du Europan (% 21,9).



Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasari buruzko adierazle hau [Gazteen Adierazleak 2013](#) ikerketan ere kontsulta daiteke, “[Hezkuntza](#)” atalean, hain zuzen ere.

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bat baino ez da honako hau. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

[Datu base interaktiboa](#). Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta 111 adierazleak aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.

[Gazteen Adierazleen Panela](#), ikerketa osatzen duten 111 adierazleen informazioa biltzen duen laburpen-taula.

[Adierazleen fitxak](#), oinarrizko 64 adierazleei buruzko informazioa.

[Laburpen exekutiboa](#), aztertutako adierazle guztien informazioa laburbiltzen duen testu laburra.